



ETXARRI ARANAZKO UDALA
Kale Nagusia 10 (KP 31820)
Tef. 948460004
udala@etxarriaranatz.com
www.etxarriaranatz.com

EDIKTUA

LAN EGUTEGIA 2015

Alkatea ordezkari sindikalekin behin bildu zen. Langile batzuek proposamena aurkeztu zioten. Gaur egun ordezkari sindikalak ez izanda, Alkateak bere proposamena azaldu du.

2014ko abenduaren 22an, Etxarri Aranazko Osoko Bilkurak aho batez erabakia hartu du, honako xedapen hauei jarraikiz

--abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako enplegatuentzat urteko lanaldia ezartzen duena, hain zuzen ere, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren aplikazio eremuan sartzen direnentzat;

--311/2014 EBAZPENA, uztailaren 3koa, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2015ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena;

Ordezkari sindikalekin bildu eta gero, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du:

1. 2015ko jaiegunen lan egutegi hau onestea, Etxarri Aranazko udal bulegoetarako:

Urtarrilaren 1a:

Urtarrilaren 6a: Errege eguna

Martxoaren 19an: San Jose eguna

Apirilaren 2a : Ostegun Santua.

Apirilaren 3a: Ostiral Santua

Apirilaren 6a: Pazko astelehena

Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

Ekainaren 13a: San Kiriko (larunbata)

Ekainaren 15a: San Adrian bezpera

Ekainaren 16an: San Adrian

Uztailaren 25ean: Santiago Eguna (larunbata)

Abuztuaren 3, 4 eta 5 : Herriko Jaiak.

Abuztuaren 15a: Abuztuko Andre Maria.(larunbata)

Abuztuaren 17a: Abuztuko Andre Mariaren hurrengo eguna

Urriaren 12: Pilar Ama Birjinaren eguna

Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

Abenduaren 8a: Ama birjinaren eguna.

Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2015. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

2.-Etxarri Aranazko Udalaren bulegoetan, eguneko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, 217 egun eta ordu bat, eta zerbitzuen beharren arabera osatu beharko da urteko lanaldiaren lanordu-kopurua, 1.592 ordukua baita; eguneko lanorduak honela banatuko dira: 8:00etatik 15:00etara guztiendako derrigorrezkoa, eta gainerako 20 minutuak langile bakoitzak nola bete erabakita, malgutasunez, 7:40etik 8:00etara bitarte eta 15:00etatik 15:20era bitarte.

3.-Erregistro orokorra 10:00etatik 14:00etara egonen da irekita, jendea hartzeko.

4.-Zerbitzu anitzetako langileen lanaldi orokorra 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, denentzat, 7:30etik 14:50era bitartean. Garbitzaileen ordutegi orokorra, 7:00etatik 14:20era bitartean.

Etxarri Aranatz 2015eko urtarrilaren 9an
Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

